

**EIBARKO UDALAREN ETA
GIPUZKOAKO URAK SA-REN ARTEKO
LANKIDETZA-HITZARMENA,
"BUSTINDUITARREN 1-7 KALEA
BERRURBANIZATZEKO" OBREN
BARRUAN HORNIDURA SAREA ETA
SANEAMENDU SAREA BERRITZEKO.**

Eibarko Udaletxean, sinaduraren datan

BILDU DIRA,

Alde batetik, Jon Iraola Iriondo jauna, Eibarko Udaleko alkate-udalburua, Daniel Salazar Irusta, udal-idazkariak lagunduta, zeinek egintzaren fede ematen baitu.

Eta, bestetik, Jose Miguel Telleria Vega jauna, Gipuzkoako Urak SA entitatearen ahaldun gisa.

Bi aldeek lankidetzaz hitzarmen hau egiteko legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta, horretarako,

HAUXE AZALTZEN DUTE

EIBARKO UDALAK "Bustinduitarren 1-7 kalea berrurbanizatzeko" obrak egingo ditu.

GIPUZKOAKO URAK SA entitateak, kontuan hartuta toki horretako hornikuntza-eta saneamendu-sareak oso zaharrak direla eta Udalak obrak egin behar dituela, uste du une egokia dela obraren esparruan sare horiek berrizteko.

Aipatutako obrak egiteko lankidetzaz esparru bat ezartzeko asmoa dutela, eta hori agerian geratzen dela bi aldeek hartzen dituzten jarduketan eta konpromisoen bidez, zeinak jarraian deskribatzen baitira hitzarmen hau osatzen duten klausuletan:

**CONVENIO INTERADMINISTRATIVO
DE COLABORACIÓN ENTRE EL
AYUNTAMIENTO DE EIBAR Y
GIPUZKOAKO URAK SA PARA LA
EJECUCIÓN DE LA RENOVACIÓN DE
LA RED DE ABASTECIMIENTO Y DE
SANEAMIENTO DENTRO DE LAS
OBRAS DE "REURBANIZACIÓN DE LA
CALLE BUSTINDUITARREN 1-7"**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Eibar, en la fecha de la firma

REUNIDOS

De una parte, D. Jon Iraola Iriondo, en su condición de Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Eibar, asistido del Secretario Municipal, Daniel Salazar Irusta, quien da fe del acto.

Y de otra parte, D. Jose Miguel Telleria Vega en su condición de Apoderado de Gipuzkoako Urak, S.A.

Ambos intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente convenio de colaboración, y a tal efecto

EXPONEN

Que el AYUNTAMIENTO DE EIBAR va a ejecutar las obras de "Reurbanización de la calle bustinduitarren 1-7".

Que por parte de GIPUZKOAKO URAK, S.A, dado que las redes de abastecimiento y saneamiento en esa zona son muy antiguas, teniendo en cuenta la actuación que va a llevar a cabo el Ayuntamiento, consideran que es el momento adecuado para la renovación de las citadas redes en el ámbito de la obra.

Que es intención común establecer un marco de colaboración para la realización de las mencionadas obras, lo que se pone de manifiesto a través de las actuaciones y compromisos que ambas partes adquieren y que se describen a continuación en las cláusulas que componen este convenio.

KLAUSULAK

Lehen: EIBARKO UDALAK konpromisoa hartzen du "ERREBAL KALEKO ZOLADURA ALDATZEA" proiektuko obrak egiteko.

Proiektua kontrata bidez gauzatzeko aurrekontua HIRUREHUN ETA BERROGEITA BAT MILA LAUREHUN ETA BERROGEITA ZAZPI EURO ETA HEMEZORTZI ZENTIMOKOA (341.447,18 €) da, eta obren esleipena HIRUREHUN ETA ZAZPI MILA HIRUREHUN ETA BI EURO ETA BERROGEITA SEI ZENTIMOTAN (307.302,46 €) ebatzi da, % 10eko beherapen-ehunekoarekin.

EIBARKO UDALARI dagokio beharrezkoak diren lursailen erabilgarritasun osoa lortzea, obren exekuzioa eta haien segurtasuna kontratatzea, bai eta beharrezkoak diren hornidurak, eta bidezkoak diren lizentzia eta baimen guztiak eskatzea ere.

EIBARKO UDALAK konpromisoa hartzen du "Bustinduitarren 1-7 zk.en berrurbanizazioa" proiektuari dagozkion lanen obra zuzendaritza eta Segurtasun eta Osasun Koordinazio-lana kontratatzeko.

Bigarrena. GIPUZKOAKO URAK, SArren ekarpena berari egotz dakiokkeen obra-zatiari dagokio, eta proiektuaren aurrekontuko kapitulu hauetan islatzen da:

- 15. kapitulua – Saneamendu-sarea 12.035,14 €
- 16. kapitulua – Edateko uraren sarea 16.837,78 €
- 18. kapitulua – Segurtasuna eta Osasuna (GU) 1.575,63 €
- 19. kapitulua – Hondakinen kudeaketa (GU) 4.153,25 €

CLAUSULAS

Primera. El AYUNTAMIENTO DE EIBAR se compromete a la ejecución de las obras correspondientes al proyecto de "REURBANIZACION DE LA CALLE BUSTINDUITARREN 1-7".

El presupuesto de Ejecución por Contrata del proyecto, es de TRESCIENTOS CUARENTA Y UN MIL CUATROCIENTOS CUARENTA Y SIETE EUROS con DIECIOCHO CÉNTIMOS (341.447,18€), habiéndose resuelto la adjudicación de las obras en TRESCIENTOS SIETE MIL TRESCIENTOS DOS EUROS con CUARENTA Y SEIS CENTIMOS (307.302,46 €) con un porcentaje de baja del 10%.

Corresponden al AYUNTAMIENTO DE EIBAR la obtención de la plena disponibilidad de los terrenos necesarios, la contratación de la ejecución de las obras y la seguridad de las mismas, así como los suministros precisos, la solicitud de cuantas licencias y autorizaciones que resultaran necesarias.

El AYUNTAMIENTO DE EIBAR se compromete a la contratación de los trabajos de Dirección de Obra y Coordinación de Seguridad y Salud de las obras correspondientes al proyecto de "Reurbanización de la calle Bustinduitarren 1-7".

Segunda. La aportación de GIPUZKOAKO URAK, SA se corresponde con la parte de obra que le es imputable y que viene reflejada en los siguientes capítulos del presupuesto del proyecto:

- Capítulo 15 – Red de saneamiento 12.035,14€
- Capítulo 16 – Red de agua potable 16.837,78€
- Capítulo 18 – Seguridad y Salud (GU) 1.575,63€
- Capítulo 19 – Gestión residuos (GU) 4.153,25€

Gastu orokorren % 13 eta industria-mozkinaren % 6 aplikatuta, gehi BEZaren % 21, guztira BERROGEITA BEDERATZI MILA ZORTZIEHUN ETA HOGETA HIRU EURO ETA HAMAHIRU ZENTIMO (49.823,13 €) egiten du.

Hirugarrena. Obrak amaitutakoan, onartu egingo dira, benetan egindakoak neurtuko dira, eta obraren azken ziurtagiria egingo da.

Ordainketa GIPUZKOAKO URAK SAK egingo dio EIBARKO UDALARI, Gipuzkoako Urak SAK azken ziurtagiria eta obren enpresa esleipendunari ordaindutako fakturak aurkeztu ondoren.

Gipuzkoako Urak SAK azken ziurtagiri horren 15., 16., 18. eta 19. kapituluei dagokien zenbatekoa ordainduko dio Eibarko Udalari, honako hauek aplikatuta: G.G.ren % 13, B.I.ren % 6, baja-ehunekoa eta BEZaren % 21.

Laugarrena. Obra Zuzendaritza GIRDER INGENIEROS, SL enpresak garatuko ditu, hitzarmen hau egiten duten erakundetik kanpo dagoen enpresak hain zuzen.

Bosgarrena. Jarraipen-batzorde bat eratuko da, Gipuzkoako Urak sozietatearen ordezkari batek eta Eibarko Udalaren ordezkari batek osatua. Hitzarmen honetan aurreikusitako jarduerak behar bezala gauzatzen direla egiaztatzeko jarraipen-lanak egingo ditu batzorde horrek.

Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, batzordea astero bilduko da.

Seigarrena. Hitzarmen hau administrazio-izaerakoa da. Akordioa interpretatzean eta betetzean sor daitezkeen auzigaiak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoak izango dira.

Aplicando el 13% de Gastos Generales, y el 6% de Beneficio Industrial, más el 21% de I.V.A, hace un total de CUARENTA Y NUEVE MIL OCHOCIENTOS VEINTITRES EUROS CON TRECE CÉNTIMOS (49.823,13€)

Tercera. Finalizadas las obras se procederá a la recepción de las mismas, a la medición de las realmente ejecutadas y se emitirá la Certificación Final de la obra.

El pago será realizado por GIPUZKOAKO URAK, S.A. al AYUNTAMIENTO DE EIBAR previa presentación a Gipuzkoako Urak, S.A. de la Certificación Final de obra y de las facturas abonadas por el Ayuntamiento de Eibar a empresa adjudicataria de las obras.

La cantidad que abonará Gipuzkoako Urak, S.A. al Ayuntamiento de Eibar será la que corresponda a los capítulos 15, 16, 18 y 19 de la citada certificación final, con la aplicación del 13% de G.G., el 6% de B.I., el porcentaje de baja y el 21% de I.V.A.

Cuarta. La Dirección de Obra será desarrollados por empresa GIRDER INGENIEROS SL, externa a las instituciones que realizan este convenio.

Quinta. Se constituirá una comisión de seguimiento formada por un representante de Gipuzkoako Urak y un representante del Ayuntamiento de Eibar que llevarán a cabo las labores de seguimiento de la normal ejecución del las actuaciones previstas en el presente Convenio.

Durante la vigencia del convenio, esta Comisión se reunirá de forma semana.l

Sexta. El presente convenio es de naturaleza administrativa. Las cuestiones litigiosas que puedan surgir en su interpretación y cumplimiento serán de conocimiento y competencia del orden jurisdiccional de lo Contencioso-Administrativo.

Zazpigarrena. Esku hartzen duen alde bakoitzak, akordio honen arabera hartzen dituen konpromisoak dagozkien erantzukizunak baino ez ditu bere gain hartzen.

Zortzigarrena. Akordioak sinatzen denetik izango ditu ondorioak eta alderdi parte-hartzaileak behartuko ditu, eta hartutako konpromisoak likidatu arte iraungo du.

Bederatzigarrena. Hitzarmena bere helburua betetzeagatik edo suntsipenagatik iraungiko da.

Aldeetako batek bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, besteak eskubidea izango du haiek zorrotz bete daitezela eskatzeko, edo hitzarmena suntsiaraz dadila eskatzeko. Suntsiarazpena gertatuz gero, aldeek zehaztuko dituzte gauzatzen ari diren jarduketak amaitzeko eta ordaintzeko baldintzak. Eta, horrekin bat datozela adierazteko, bertaratutakoek sinatu egin dute, bi aletan, adierazitako lekuan eta egunean.

EIBARKO UDALA

Sin: Jon Iraola Iriondo

Sin: Daniel Salazar Irusta

Séptima. Cada parte interviniente asume únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contrae en virtud del presente convenio.

Octava. El Convenio surtirá efecto y obligará a las partes intervinientes desde su firma, y durará hasta la liquidación de los compromisos asumidos.

Novena. El Convenio se extinguirá bien por el cumplimiento de su objetivo o por resolución.

El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra, o para exigir su estricto cumplimiento, o para solicitar la resolución del convenio. En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las actuaciones que se hallen en ejecución. Y en prueba de conformidad con lo establecido lo firman los comparecientes en duplicado ejemplar en el lugar y fecha señalados.

GIPUZKOAKO URAK SA

Sin: Jose Miguel Telleria Vega



Gipuzkoako Ur Kontsortzioa
Gipuzkoako Urak